



Guraso agurgarriok,

Gutun honen bidez zuon seme-alaben hezkuntzan zein aisialdian lagungarri suertatu ahal zaizkizuen **ikastaro zein hitzaldi** batzuen berri ematera natorkizue. Alde batetik, **umeein errezetak egiten jolasteko aukera** eskaini nahi dizuegu sukaldari euskaldun baten laguntzarekin. Bestetik, euskaraz jakin ez arren **seme alabei eskolako lanekin zelan lagundu** ikasteko hitzaldia izango dugu.

➤ SEME-ALABEKIN ERREZETA DIBERTIGARRIAK SUKALDATZEKO TAILERRA

Errezeten bitartez seme-alaben hezkuntza prozesuan eragin dezakegu. Izan ere, sukaldaritzaren bitartez haurrek ahozketasuna, trebezia eta gaitasun komunikatiboak garatzen dituzte. Sukaldari profesional baten laguntzarekin zenbait errezeta egiten ikasiko dugu modurik entretenigarrienean. Tailerra euskaraz izango da.

Helburuak:

1. Seme-alabekin jolasteko errezeta berriak ikastea.
2. Errezeta dibertigarrien bitartez ludikotasuna eta osasuna uztartzea.
3. Euskararekiko motibazioa sustatzea.
4. Ondo pasatuz esperientzia positiboak bultzatzea.

UDALTEGIA	DATA	ORDUA
Begoñako udaltegia (Circo Amateur Club Deportivo, 2)	Otsailaren 15ean (asteazkena)	18:00etan
Castañoseko udaltegia (Castaños, 11)	Otsailaren 16an (osteguna)	18:00etan
Deustuko Bidarte udaltegia (Agirre Lehendakaria, 42)	Otsailaren 17an (ostirala)	18:00etan

➤ NOLA LAGUNDU GURE SEME-ALABEI ESKOLAKO LANEKIN?

Ikastaro honetan, euskaraz jakin ez arren, seme-alabei eskolako lanekin laguntzeko teknikak eta estrategiak ikasiko ditugu. Hezitzaileak ohiko galderei erantzunak ematen ahaleginduko dira. "Ez ditut bere etxerako lanak ulertzen eta berak ez daki azaltzen, zer egin dezaket?". Iñaki Eizmendi hezitzaileak egoera desberdinei aurre egiteko aholkuak emango dizkigu adibide praktikoek bitartez. Hitzaldia gazteleraz izango da.

UDALTEGIA	DATA	ORDUA
Begoñako udaltegia (Circo Amateur Club Deportivo, 2)	Urtarrilaren 31n (asteartea)	18:00etan
Tibolin, Epalza Alargunaren ikastetxean (Tiboli, 5)	Otsailaren 2an (osteguna)	18:00etan
Deustuko Bidarte udaltegia (Lehendakari Agirre, 42)	Otsailaren 4an (larunbata)	11:00etan

Sabin Anuzita Pomposo

EUSKARA, GAZTERIA ETA KIROL SAILEKO ZINEGOTZIA